


# 61 Jazzaldia

Victoria Eugenia Antzokia - Donostia

**2026ko uztailak 22 - 25**

fundación sgae fundazioa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiakultura
61 Jazzaldia




**Uzt 22 - 25**
**2026**

# Donostiako Jazzaldia

## Victoria Eugenia Antzokia

**salo bakoitzeko 10 €**

Sarrera-salmenta:
Victoria Eugenia Antzokiko txarteldegia eta
www.jazzaldia.eus web orriaren bitartez

Uztailak 22, asteazkena

12.30h **JAVI RUIBAL CUARTETO**
**XAN CAMPOS**
*AMORODIOS*

Uztailak 23, osteguna

12.30h **ANGGIE OBIN**
**NOA LUR**
*MULTIPOLAR*

Uztailak 24, ostirala

12.30h **PLEITO**
**EL GRAN RA**

Uztailak 25, larunbata

12.30h **VÍCTOR ANTÓN CUARTETO**
*NUDOS, MÚSICA INEVITABLE*
**DANIEL JUÁREZ QUARTET**
*REFLEXIVIDAD*

fundación sgae fundazioa · donostiakultura · 61 Jazzaldia

jazz eñe



# JAVI RUIBAL CUARTETO

## TALDEKIDEAK

**Javi Ruibal**: bateria eta perkusioa
**Óscar Álvarez**: baxu elektrikoa
**Alejandro Marcos**: pianoa eta teklatuak
**Diego Villegas**: airezko instrumentuak (saxofoia, flauta, klarinetea...)

## KONTAKTUA

office@artglobalspain.es
https://linktr.ee/javiruibaljr

Javi Ruibal Cuarteto deritzon Javi Ruibal perkusionistak berak gidatutako proiektua da, flamenkoaren elementuak eta munduko musika biltzen dituen jazz fusioko proposamena. Bateria, baxu, piano eta haizezko instrumentuen oinarrizko formazioarekin, laukoteak soinu-hizkuntza irekia eraikitzen du, eta hori hedatu egiten da instrumentuak gehituz, hala nola lautea, bibrafonoa, teklatuak, sintetizadoreak edo gitarrak, ñabardura eta ehundura ugariko paisaia musikala sortuz.

*Solo un mundo* bere lehen lana argitaratu ondoren, Javi Ruibalek bigarren albuma aurkeztuko du, *LUZ*, zortzi emakumeren bizitzan inspiratutako lana, batzuk benetakoak eta beste batzuk irudikatuak. Proiektu berri honek jazzaren sonoritate hurbilagoan sakontzen du, bere izaera hibridoa eta esploratzailea mantenduz, non eragin ezberdinek ikuspegi garaikide eta pertsonal batetik hitz egiten duten. Laukote honekin, Javi Ruibalek tradizioaren eta berrikuntzaren artean dabilen proposamen artistiko bat sendotzen du, esperientzia musikal dinamiko, adierazkor eta gogorarazle bat eskainiz.

fundación sgae fundazioa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiakultura
61 Jazzaldia

jazz eñe



Argazkia: Alejandra Córte-Real

# XAN CAMPOS: *AMORODIOS*

## TALDEKIDEAK

**Faia Díaz**: ahotsa eta pandereta
**Xan Campos**: pianoa eta sintetizadoreak
**Felix Barth**: baxua
**Iago Fernández**: bateria

## KONTAKTUA

xancampos@gmail.com
www.xancampos.com

*Amorodios* diskarekin Xan Campos piano-jotzaile eta konpositoreak jazz garaikidea Galiziako tradizioarekin, rockarekin, poparekin eta elektronikarekin uztartzen duen proiektua proposatzen du, nonbait, sustraiko musika eta soinu esperimentazioa uztartzen dituen hizkuntza propioa garatuz.

Emaitza proposamen intimo eta kontraste handikoa da, non energia-uneak erabateko sotiltasun pasarteekin batera gauzatzen diren. Faia Díazen ahotsa, halaber, musika tradizionaletik datorrena eta ohiko jazz-hizkuntzatik urrun dagoena, alegia, funtsezko elementu gisa integratzen da, soinu-identitate zuzena, organikoa eta guztiz adierazkorra emanez.

Itxurazko sinpletasun baten azpian, proiektuak arkitektura erritmiko, harmoniko eta melodiko konplexua ezkutatzen du, galiziar musikan inspiratutako metriketatik eta perkusioaren kontzepzio zabal batetik abiatuta eraikia, non instrumentu tradizionalek funtsezko papera hartzen duten.

fundación sgae fundazioa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiakultura
61 Jazzaldia

jazz eñe



# ANGGIE OBIN

## TALDEKIDEAK

**Anggie Obin**: zeharkako txirula (lidergoa)
**Gorka Benítez**: zeharkako txirula y saxofoi tenorra
**Massa Kamaguchi**: kontrabaxua
**Diego Hervalejo**: pianoa
**Estefanía Chamorro**: bateria

## KONTAKTUA

booking.ovmusic@gmail.com
https://www.anggieobin.com/

Anggie Obin boskotea Bartzelonan bizi den Anggie Obin txirulari panamarrak gidatutako taldea da. Sormenean, interakzio musikalean eta jazz abangoardistarekiko zein latinoarekiko pasio edo grina partekatuan oinarritutako proposamena dugu, American Songbook taldearen moldaketak ere biltzen ditu. Bere musika elkarren entzutetik eta lengoaia garaikideen esploraziotik eraikitzen da, soinu-espazio malgua eta adierazkorra sortuz, guztira.
Oraingo honetan, proiektuak egungo eszenako musikari nabarmenak biltzen ditu, Espainian bizi den maila handiko nazioarteko boskotea osatuz. Proiektua bere aberastasun tinbrikoagatik, askatasun inprobisatzaileagatik eta tradizio jazzistikoaren edo estetika berrien arteko loturagatik nabarmentzen da.

fundación sgae fundazioa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiakultura
61 Jazzaldia

jazz eñe



# NOA LUR: *MULTIPOLAR*

## TALDEKIDEAK

**Noa Lur**: ahotsa
**Tony Pereyra**: gitarra
**David Sancho**: piano eta teklatua
**Ander García**: baxu elektrikoa
**David Fernández**: bateria


## KONTAKTUA

noalur@noalur.com
https://noalur.com/

Noa Lur abeslari eta konpositore bilbotarrak *Multipolar* bere lan diskografiko berria aurkeztuko du, prentsa espezializatuak 2025eko diskorik onenetakotzat eta bere ibilbideko handienetakotzat jotzen duen lan bera. Aldez aurretik bideratutako sei ekoizpenez harago, proiektu honetan soinu-identitate propioa sendotu du artistak, bere burua nazioarteko talde batez inguratuz eta jazza gainditzen duen proposamen eklektikoa zabalduz, akaso, rockarekin eta groovearekin solasaldian. *Multipolar* gizakiaren alderdi anitzak aztertzen dituen bidaia emozional bat da, unibertso konplexu eta aldakor bat islatzen duen txangoa. Bere konposizioen bidez, Noa Lurrek osasun mentala, amatasunaren intentsitatea, sektore artistikoaren prekarietatea edo idoloen erorketa bezalako gaiak jorratzen ditu, definitzen gaituzten polaritateen ispilu gisa aritzen den diskurtso sakon, kritiko eta garaikide bat eraikiz. Bilbotarraren ibilbidean zehar, BBK Jazz edo Musika Bulegoa bezalako Sariak jaso ditu *GAUR* proiektuagatik, eta Estoniako Nomme Jazzek Europako jazz abeslari gazte onenen artean nabarmendu du. Besteak beste Bobby McFerrin edo Macy Gray bezalako nazioarteko artistekin batera emanaldiak eskaintzen ditu.

fundación sgae fundazioa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiakultura
61 Jazzaldia

jazz eñe



# PLEITO

## TALDEKIDEAK

**Alba Aceytuno**: saxofoi altua, ahotsa eta perkusioa

## KONTAKTUA

pleito.contacto@gmail.com
Alba Gil Aceytuno, saxofonista de jazz y fusión canaria

Kanaria Handiko saxofoi jotzailea da Alba Aceytuno, eta bere bakarkako proiektua aurkezten digu honenbestez, proposamen intimo eta pertsonala, alegia; ahotsarekin, efektuekin eta loopekin elkarrizketan bere instrumentuaren adierazpen-aukerak aztertzen dituen saiakera. Eszenan soinu-unibertso inguratzaile bat eraikitzen du, zeinean arnasketa zirkularraren teknika narratiba introspektibo eta zuzen batekin konbinatua den, esperientzia musikal hipnotiko eta emozional bati pauso emanez.

Bere errepertorioa berezko konposizioen eta Kanarietako folklorearen berrinterpretazioen artean igarotzen da, artxipelagoko nortasunarekin eta kulturarekin bat egiten duten melodiak eta letrak nonahi. Ikuspegi honek tradizioaren eta garaikidetasunaren arteko zubi bat sortzen du, non antzinakoa gaur egungo soinu-hizkuntza esperimental batean integratzen den.

Azaroan argitaratu zuen bere lehen albuma, *coloresdelaspiedras*, eta Kanariar Uharteetan, penintsulan eta Kolonbian ibili da harekin. Aldi berean, Alba Aceytuno hainbat proiekturen parte da, hala nola Gran Canaria Big Band edo Rupatrupa. Musika-eszenaren barruan ibilbide moldakorra agertzen du.

fundación sgae fundazioa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiakultura
61 Jazzaldia

jazz eñe



# EL GRAN RA

## TALDEKIDEAK

**Raúl Márquez**: biolina eta konposizioa
**David Sancho**: pianoa
**Francisco José Gayo**: bateria

## KONTAKTUA

raulmaarquez@yahoo.es
WWW.RAULMARQUEZ.COM

Raul Marquez biolin jotzaile eta konpositoreak *El Gran Ra* aurkezten digu, zirkuko musikaren unibertso zirraragarrian inspiratutako proiektua, bere jatorrizko konposizioei bizia ematen diena eta zirkuaren arteari eta bere berrasmatzeko gaitasun etengabeari gorazarre egiten dion apostua. Artistak berak Madrilgo Circo Price Antzokirako konposatutako soinu-bandetatik abiatuta sortutako ikuskizuna da, energiaz, emozioz eta narratibaz betetako soinu-bidaia gisa egituratua, alegia. *El Gran Ra*k zirkuaren bizitzan, pasioan eta oroimenean zehar ibilbide bat marrazten du, berorren irudi enblematikoenetako batzuk gogora ekarriz. Konposizio bakoitza Pinito del Oro trapezista, Othman akrobata, Daja Tarto fakirra edo Charlie Rivel pailazoa bezalako artistetan inspiratua dago, eta horietako batzuk gogoan hartuta, haien arrastoa bizirik mantentzen ditu orainean. Oholtzan Raul Marquezek David Sancho piano-jotzailea eta Fran Gayo bateria-jotzailea ditu lagun, aldakortasun eta adierazpen-aberastasun handiko hirukotea osatuz guztien artean. Raul Marquezek interpretatzaile, estudioko musikari eta sortzaile gisa egiten duen lanarekin batera, Sara Baras, Manuel Liñán, Antonio Canales, Joaquín Cortés edo Nuevo Ballet Español bezalako dantza konpainia garrantzitsuekin kolaboratzen du, baita Zenet, Jorge Pardo, Joaquín Ruiz, El Cigala edo Pasión Vega bezalako artistekin ere. Nazioarteko agertoki garrantzitsuenetakotan aritu da. Bere proiektuen artean Swing Machine Orchestra, Menil Swing, Grappelliri egindako tributoa edo Cabaret Flotante nabarmentzen dira.

fundación sgae fundazioa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiakultura
61 Jazzaldia

jazz eñe



Argazkia: Noah Shaye

# VICTOR ANTÓN CUARTETO: *NUDOS, MÚSICA INEVITABLE*

## TALDEKIDEAK

**Víctor Antón**: gitarra
**Daniel Juárez**: pianoa
**Darío Guibert**: kontrabaxua
**Rodrigo Ballesteros**: bateria

## KONTAKTUA

https://victorantonmusic.com/contacto/
https://victorantonmusic.com/

Víctor Antón Cuarteto taldeak *Nudos, música inevitable* aurkezten du, hainbat plano espresiboren elkargunean sortzen den proiektua: esan ezin den baina egituratu egiten den hura, gainezka egiten duen sonoritatea. Bidegurutze horretan korapilo bat sortzen da, ikusezina baina funtsezkoa, laukotearen diskurtso musikala artikulatzen duen saiakera, alegia.

Estimuluz betetako testuinguru garaikide batean, non emanten duen dena nonbait formulatua dagoela, sorkuntza premiazko edo beharrezko ekintza gisa planteatzen da. Musika, izan ere, etengabeko bilaketa-modu bat bihurtzen du, ezinbesteko sintoma jarraitzen duen bultzada izango balitz bezala. Lan diskografiko honek, hain zuzen ere, korapilo horiek aztertzen ditu: tentsio eta hauskortasun-espazioak, non edukia eta hedakorra elkarrekin bizi diren.

Sonoritate ireki eta guztiz adierazkorraren bidez, denera, laukoteak elkarrizketa bat eraikitzen du, non musika erresistentzia, galdera eta eraldatzen ari den hizkuntza gisa agertzen den.

fundación sgae fundazioa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiakultura
61 Jazzaldia

jazz eñe



# DANIEL JUÁREZ QUARTET: *RELLEXIVIDAD*

## TALDEKIDEAK

**Daniel Juárez**: saxofoi tenorea
**Iñigo Ruiz de Gordejulea**: pianoa
**Darío Guibert**: double bass
**Naima Acuña**: bateria

## KONTAKTUA

danieljuarezmejias@gmail.com
https://www.danieljuarezsax.com/es

Daniel Juárez quartet-ek *Reflexividad* aurkezten du, Reflexividad zigilupean argitaratutako proiektua, non Daniel Juárez saxofoi jotzaile eta konpositoreak lan introspektibo sakona proposatzen digun. Albumak edertasuna, desira, identitatea eta perspektiba bezalako kontzeptuak aztertzen ditu, giza esperientzia unibertsalei buruzko hausnarketara gonbidatzen duen diskurtso musikala artikulatuz.

Europako urteko jazz garaikidearen proposamen nabarmenetako bat da *Reflexividad*, Espainiako eta nazioarteko musikari garrantzitsuenetako batzuek osatutako laukote baten bitartez bideratua. Bere interakzioak sotiltasun handiko soinu-espazio bat sortzen du, non inprobisazioa eta konposizioa orekan bizi diren. Proiektuak mugimenduan dagoen ispilu gisa ulertuarazi nahi du musika, hots, pertzepzioa etengabe eraldatzen den eta interpretazio bakoitzak irakurketa emozional eta estetiko berriak irekitzen dituen leku gisa.

fundación sgae fundazioa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiakultura
61 Jazzaldia

jazz eñe

# PRENTSA-KITA

# PLAYLIST OFIZIALA

## KONTAKTUA

Komunikazioa SGAE / SGAE Fundazioa Euskadi - Martin Calvo
620 827 207
mcalvob@sgae.es

fundación sgae fundazioa